

OÑATIKO EUSKARAREN
ERABILERAREN
KALE NEURKETA 2005

2006ko martxoa
Amaia Kerexeta

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Fitxa teknikoa	4
2.1. Hizketan entzundakoak	7
3. Euskararen erabilera	9
3.1. Orotara	9
3.2. Adin taldeka	11
3.3. Erabilera ezagutzarekin konparatuz ..	15
3.4. Sexuka	17
3.5. Guneka	19
3.6. Ibilbidearen arabera	24
4. Ondorioak	25
5. Proposamenak	27

1. SARRERA

Esku artean daukazu hau, Oñatiko **zortzigarren** euskararen erabileraren kale neurketa duzu. 1989an lehenengoa egin zenetik, ondorengo kale neurketa guztiak sasoi eta baldintza berdinetan egiten dira. Horri ezker, hizkuntzaren bilakaera ezagutzeko tresna baliagarriak dira neurketok.

Ondoren, lan honetako atal ezberdinetan aurkituko duzunaren laburpen txiki bat daukazu:

Lehendabizi, fitxa teknikoari dagokionez, batetik, kale-neurketa noiz, non eta nola egin den zehazten da eta, bestetik, aurtengo laginari buruzko xehetasunak ematen dira.

Datuen azterketa "Euskararen erabilera" izenburudun bigarren atalean egin dugu. Bertan, irakurketa orokorrek hasi eta adin taldekako, ezagutzari buruzko, sexuaren araberrako eta gunekako datuak eman eta aztertzen dira hurrenez hurren.

Oñatiko euskararen erabilerari buruzko ondorioekin eta hurrengo neurketetarako proposamenak luzatuz bukatzen da lan hau.

Egileok txostena ulergarri eta era berean irakurlearentzat lagungarri izango den esperantzan egin dugu. Izan ere, euskararen normalizazioan aurrera egin nahi badugu ezinbestekoa da egungo errealitatea zein den ezagutzea; eta horixe da, hain zuzen, kale neurketarekin lortu nahi dena.

2. FITXA TEKNIKOA

Kale neurketaren helburua kaleetan leku, egun eta ordu konkretu batzuetan zenbat eta zein jende mota ari den euskaraz edo gazteleraz hitz egiten jasotzea da. Neurketa ez da inkesta bat, hau da, jendeari ez zaio galdeketa egiten, baizik-eta zein hizkuntza erabiltzen duten entzuten da. Datu horiek orokortuz gero, urteen ondorioz bilakaerari buruzko informazioa lor daiteke. Honek erabileraren joera ikusteko aukera ematen du.

Beraz, aurreko kale neurketak bezala 2005ekoa ere urte sasoi berean eta baldintza berdinetan egin da, datuak beste urteetako neurketetako datuekin alderatu ahal izateko. Honako egunetan hain zuzen ere: azaroaren 24an (osteguna), astegunekoa eta azaroaren 26an eta 27an (larunbata eta igandea), asteburukoak.

Urtero legez, Oñatiko hiru gune bereiztu dira kale-neurketa egiterakoan:

-Herri Barrua (H.B.): Izen horrekin izendatzen dugu Kale Zaharretik —Agustinoen eliza paretik— Etxaluzeraino dagoen kaleartea, herriko plaza tartean dela. Aurten lehenengo aldiz, *auzo berri* bat hartu dugu kontutan: Bidebarrieta.

-San Lorentzo-Olakua (S.L.O.): Bi auzo hauetako zerbitzuen arteko ibilbideak eta jendearen egonlekuak.

-Errekalde (ERR.): Errekalde auzoari bira.

Ondoko taulan laburbiltzen den bezala, guneak, egunak eta orduak kontuan izanda **11 ibilbidez** osatzen da kale neurketa.

KALEAK	AZAROAK 27 OSTEGUNA		AZAROAK 29 LARUNBATA		AZAROAK 30 IGANDEA	
	GOIZA (12-1)	ARRATS. (4:30- 6:30)	GOIZA (11-1)	ARRATS. (6-8)	GOIZA (1-2)	ARRATS. (6-8)
HERRI BARRUA (H.B.)						
SAN LORENTZO OLAKUA (SL.O.)						
ERREKALDE (ERR.)						

*Oharra: Taulan grisez dauden lekuetan ez da neurketarik egin.

Ibilbide bakoitzean behatzaile bikote batek kalean une horretan jendea zein hizkuntzatan —euskaraz ala gazteleraz— hitz egiten ari den jasotzen du. Datuak jasotzerakoan neurtzaileek bi aldagai hartzen dituzte kontuan: adina eta sexua. Ezinbestekoa da inork ez jakitea neurketa burutzen ari dela.

Behatzaileek informazioa ondorengo irizpide hauen arabera jaso behar dute:

- Bi pertsona elkarrekin badaude, nahiz-eta batek hitz egin, biak apuntatu behar dira.
- Behatzaileek ez dute jendearekin hitz egin behar.
- Neurtzaileekin hitz egiten duten pertsonen datuak ez dira apuntatuko (baldintzatuta egon baitaitezke).

- Baina neurtzaileekin egon den pertsona bera beste batekin hizketan badago, apuntatu egin behar da.

Adinaren arabera honako multzo edo taldeak bereiztu dira:

-Haurrak:	14 urtera arte
-Gazteak:	15 urtetik 24ra bitartekoak
-Helduak:	25etik 64ra bitartekoak
-Zaharrak:	65 urtetik gorakoak

Aurten datu gehiago jasotze aldera (esaterako, helduek beraien artean hizkuntza bat erabili ondoren, haurrei zuzentzeko egiten duten hizkuntz aldaketa), fitxa teknikoa¹ aldatu egin dugu. Bereiztu ditugun zutabeak euskara eta gaztelera izan dira; adina eta sexuari dagokionean, aldiz, kodeketa berezi bat erabili dugu:

- SEXUA bereizteko:
 - gizona (G) eta emakumea (E)
- ADINA bereizteko:
 - haurrak —<14 urte— (1)
 - gazteak —15 urtetik 24 urtera bitartean— (2)
 - helduak —25 urtetik 64 urtera bitartean— (3)
 - zaharrak —65tik aurrera— (4)
- ETORKINAK ere kontutan hartu ditugu (*).

Adibidez: bi mutil gazte entzuten baditugu lau emakume helduekin euskaraz hizketan, eta emakumeetariko bat etorkina bada, euskararen zutabeen honakoa jarriko genuke:

G2 (2) + E3 (3) + E3*

¹ Ikus fitxa teknikoa eranskinean.



2.1. HIZKETAN ENTZUNDAKOAK

Guztira kale-neurketak iraun zuen 18 ordutan 2.741 pertsonen hizkuntza erabilera jaso da, hau da, 2005an Oñatin erroldatuta zegoen biztanleriaren %25,50rena².

Ondorengo taulan ikus daiteke adin talde bakoitzaren ehunekoak, batetik, orain arte egindako kale neurketa ezberdinetan eta, bestetik, 2005eko erroldan:

	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK		GUZTIRA
KN 89	1.467	%29,14	753	%14,96	2.298	%45,65	516	%10,25	5.034
KN 91	764	%28,02	527	%19,33	1.218	%44,66	218	%7,99	2.727
KN 93	611	%25,18	566	%23,32	1.072	%44,17	178	%7,33	2.427
KN 95	922	%26,58	581	%16,75	1.581	%45,58	385	%11,10	3.469
KN 97	1.132	%28,32	778	%19,46	1.640	%41,03	447	%11,18	3.997
KN 00	770	%26,30	374	%12,78	1.368	%46,74	415	%14,18	2.927
KN 03	849	%27,4	306	%9,88	1.535	%49,55	408	%13,17	3.098
KN 05	933	%34,04	207	%7,55	1.220	%44,51	381	%13,90	2.741
ERROLDA 05	1.314	%12,22	1.020	%9,49	6.203	%57,71	2.212	%20,58	10.749

Ondorengo taulan kale neurketan entzundakoen kopuruak erroldako zein ehuneko osatzen duen ageri da.

HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
----------------	----------------	----------------	-----------------	----------------

² Akats-tartea: pertsona berdina behin baino gehiago zenbatua izan zitekeen, baita Oñatiko ez den norbait ere. Oñatikoak ez zirela ziur zegoen pertsona-talde handiak ez dira konputatzen.



KN 05	933	%71	207	%20,29	1.220	%19,67	381	%17,22	2.741	%25,48
ERROLDA 05	1.314	%100	1.020	%100	6.203	%100	2.212	%100	10.749	%100

Kale neurketaren datuak adierazgarriak direla bermatzeko laginak erroldaren %20a edo gehiagokoa izan behar du. 2005eko neurketan bi adin taldetan betetzen da baldintza hau —haurretan eta gazteetan—; helduetan eta zaharretan, berriz, lagina ez da %20ra iristen. Tarte txikia denez baliagarritzat jo ditugu datuak³.


³ Hurrengo neurketetan horrela izan dadin, irtenbide bat proposatu dugu ikus 28 orria.



3. EUSKARAREN ERABILERA

3.1. OROTARA

2005eko neurketan Oñatiko kaleetan hitz egiten entzundako 2.741 pertsonetatik, 1.678 ari ziren euskaraz, hau da, **%61,22a** hain zuzen ere. Beraz, datu hauen arabera, oñatiarren erdiak baino gehiagok euskara du ohiko hizkuntza kalean dagoenean.




Eraitza ponderatuz gero, ehunekoa dezente jaisten da, ordea. Horrela, adin talde bakoitzeko lortutako euskararen erabilerari buruzko datuei erroldan talde bakoitzari dagokion pisua emanda, erabilera %54,51koa da.

Bilakaera

Orain arte egindako zortzi kale neurketatako datuak kontuan izanda, aipagarria da aurtengo datuak direla altuenak. Aurreko kale neurketarekiko 1,41 puntutako igoera eman da euskararen erabileran eta 16 urtetako epean, berriz, 13,32 puntutakoa.


<u>Neurketa</u>	<u>Erabilera</u>	<u>Diferentzia</u>	
KN89	%47,9		
KN91	%56,3	+8,4	
KN93	%62,1	+5,72	
KN95	%57,1	-5	
KN97	%57,4	+0,3	
KN00	%56,7	-0,7	
KN03	%59,81	+ 3,11	
KN 05	%61,22	+1,41	+13,32



3.2. EUSKARAREN ERABILERA ADIN-TALDEKA

2005eko emaitzen arabera lau adin-taldeetan ez da euskara neurri berean erabiltzen. Hona hemen adin-taldeen sailkapena euskara gehien erabiltzen dutenetatik hasita gutxien erabiltzen dutenetara:

1- Haurrak	%81,24
2- Gazteak	%80,19
3- Zaharrak	%55,38
3- Helduak	%44,51



Lau adin-multzoetatik hirutan, euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da. Gazteek eta hurrek herriko batz bestekoa (%61,22a) erruz gainditzen dute. Helduen artean, aldiz, erdiak baino gutxiagok hitz egiten du euskaraz Oñatin eta zaharretatik erdiak baino gehiago


hitz egiten duen arren euskaraz, ez da herriko batz bestekoa gainditzera heltzen.

Kontuan hartu beharrekoa da, ordea, haur eta gazteek Oñatiko biztanleriaren laurdena ere ez dutela osatzen (%21,71a, hain zuzen). Eta beraz, errealitatean gehiengoa (%78,29a) osatzen duten heldu eta zaharren artean, gaztelera dela hizkuntza nagusia.

Aipagarria deritzogu baita ere, ondorengo atalean zehatzago ikusiko dugun moduan, taulako %50eko marra erreferentziazat hartuta, 1991. urtetik zaharrek marraren goialdetik beherako joera aldatu egin dela azken 14 urteetan lehenengo aldiz.

Bilakaera

Kale-neurketaren benetako balioa, adin-taldeen arabeko erabilera urtez urte konparatzen denean agertzen da, orduan bistaratzen baitira gure hizkuntzaren berreskuratze prozesuari dagozkion joera interesgarrienak. Hona hemen egindako kale-neurketa guztietako datuak, adin taldetan banatuta:



Ikus dezagun taldez-talde zer gertatu den:

-Haurrak: Aurreko kale-neurketarekiko ia 6 puntutako (5,96 puntutakoa) beherakada jasaten dute, azken urteetako gorakadaren ondoren. Hala ere, Oñatiko haurrak dira euskaraz gehien hitz egiten jarraitzen dutenak, beti ere azken hamabost urteetara mugatzen garela kontuan izanda. Aurretik aipatu bezala, ordea, kontuan hartzekoa da haurrak Oñatiko biztanleriaren %12,22 besterik ez direla.

-Gazteak: Azken urteetako beherakada arinaren ostean, 2005eko neurketan gazteek %80a gainditzen dute lehenengo aldiz 16



urtetan. Ondorioz, Oñatiko gazteen euskararen erabilerak 1989ko gazteenaren bikoitza baino gehiagokoa izaten jarraitzen du.

-Helduak: 2003an izandako ia 9 puntutako gorakadaren ondoren, 2005ean berriz ere behera dator helduen taldea, nahiz-eta oso beherakada txikia izan (0,64 puntutakoa). Ondorioz, adin talde hau osatzen dutenek, azken urteetako datuekin batera, orain arteko emaitzarik onenak lortu dute.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar helduen euskararen erabilera %50eko marraz behetiko tramuan mantentzen dela oraindik.

-Zaharrak: Azken urteetako beherakadaren ostean, aurten Oñatiko zaharren euskararen erabilerak gora egin du, 8,81 puntuko gorakada esanguratsua lortuz.

1989-1997 urte tartean lortutako emaitzetatik oraindik urruti dagoen arren zaharren taldea, azken bi neurketekin alderatuz gero, aurtengoa da emaitzarik onena. Eta aurreko urteetako emaitzetan gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen zela aurreikusi zitekeen arren, badirudi aurtengo emaitzetan berriro ere euskara nabarmendu dela.

Laburbiltzeko zera esan daiteke:

Biztanleria zahartzen doan heinean, berau osatzen duten pertsonen adin talde batetik besterako jauzia egitearen ondorioz, beraien hizkuntza ohiturek eragina dutela adin taldekako euskararen erabilerari buruzko datuen bilakaeran. Dinamika horrek argitzen du, hein handi batean behintzat, zaharren euskararen erabilera jasaten ari

den etengabeko beherakada; era simple batean esanda, lehen nagusiki erdalduna zen helduen taldea osatzen zutenak (edo batzuek behintzat) gaur egun zaharren taldera paseak dira eta beraiek erabiltzen duten hizkuntzak, berriz, berdina izaten jarraitzen du.

Haurren taldetik gazteen talderako aldaketan zer gertatzen den ikusteko, aurtengo gazteen datuak 1993ko haurren datuekin aldera genitzake, orduan haurren taldea osatzen zutenek osatzen baitute, hamar urte beranduago, gazteen taldea. Ikusten denez, epe honetan, euskal hiztunen proportzioa pixka bat jaitsi den arren, gehiengoak euskaraz hitz egiteari eusten dio.

Azkenik, gazteen taldetik helduenera pasatzeak hauen euskararen erabileraren proportzioan duen eragina zehatz-mehatz neurtzea zailagoa den arren (bi taldeetako adin tartea -10 urtekoa haurrei dagokienean eta 40koa helduei dagokienez, berriz- guztiz ezberdina baita), aurretik aipatutako 8,61eko gorakada adin taldeen arteko mugimendu horren ondorioa izan daiteke, besteak beste. Hau da, helduen taldera azkenaldian sartutakoak euskaldunagoak dira epe berean talde hau utzi dutenak baino.

3.3 EUSKARAREN ERABILERA EZAGUTZAREKIN KONPARATUZ.

Orain arte aztertutako erabilerari buruzko datuak ezagutzari buruzkoekin parekatuko ditugu atal honetan. Bere horretan erlatiboak diren erabilerari buruzko datuak baloratzerakoan erreferentzia garrantzitsua da ezagutzari buruzko informazioa. Horrela, %5eko erabilera datu txartzat jo daiteke ezagutza %80koa den herrian; baina


bestalde, %5 hori oso datu ona izan daiteke euskara biztanleriaren %6ak ezagutzen duen lekuan.

Irakurketa hau egiteko erabiliko ditugun ezagutzaren datuak 2001ekoak dira.

Hona hemen datuak adin taldeka:

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
Erabilera 05	%81,24	%80,19	%41,51	%55,38	%61,22
Ezagutza 01	%89,71	%96,20	%73,04	%80,71	%79,34
Diferentzia	%8,47	%16,01	%31,53	%25,33	%18,12

Ezagutzari buruzko datuak EUSTATEk emanak dira.





Ikus dezakegunez adin talde guztietan euskararen erabilera ezagutza mailaren azpitik dago. Orokorrean erabilera eta ezagutzaren arteko diferentzia 18,12 puntutakoa da. Adin taldeei begiratzuz hauren taldean erabilera eta ezagutza nahiko gertu daude, baina gainerako adin tartetan diferentzia hori nabarmena da.

3.4 EUSKARAREN ERABILERA SEXUKA

Sexuaren arabera, euskararen erabileraren maila honako hau duzue:

	EUSKARAZ	GAZTELERAZ
GIZONAK	%59,42	%40,58
EMAKUMEAK	%62,7	%37,3

Ikus daitekeenez gizon zein emakumeen artean euskararen erabilera nagusi da.




Aurreko urteetan ez bezala aurtengo datuen arabera, Oñatin emakumeek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz.

Datuen iraulketa horretan eragina izan du bai emakume euskal hiztunen proportzioaren gorakada deigarriak (6,56 puntutakoa), baita gizonezkoen taldean eman den jaitsierak ere (2,84 puntutakoa).

Euskararen erabilera sexuka , adin taldearen arabera

Euskararen erabilerari sexuka eta adin taldearen arabera begiratzen badiogu, honako emaitzak jaso ditugu.

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
GIZONEZKOAK	%84,48	%76,35	%42,72	%43,61	%59,42
EMAKUMEZKOAK	%89,47	%74,05	%46,78	%50,28	%62,7



Taulan agertzen denez, gizonezko heldu eta zaharrak eta emakumezko helduak dira euskara baino erdara gehiago hitz egiten dutenak.

Emakume eta gizonezkoen datuak alderatzekotan, aipagarrienak sexu bateko eta besteko haurrei eta zaharrei buruzkoak dira. Horrela bada, neskatilek mutikoek baino dezente gehiago hitz egiten dute euskaraz eta gauza bera gertatzen da 65 urtetik gorako emakume eta adin bereko gizonezkoen artean.

Hala gertatzen da helduen kasuan ere eta gazteei dagokienean, berriz, mutil euskal hiztunen proportzioa neskena baino handiagoa da. Azken bi adin taldeetan, ordea, sexuen arteko ezberdintasuna ez da beste taldeetan bezain esanguratsua.

3.5. EUSKARAREN ERABILERA GUNEA

Hiru guneeetan euskara da gehien erabiltzen den hizkuntza. Gehien erabiltzen den gunea Errekalde dugu (%65,42), ondoren Olaku-San Lorentzo gunea (%51,63) eta azkenik Herri Barrua (%62,24).

Orain arteko kale neurketen txostenei begiratuaz ikus daiteke gunekako datuen analisiari orain arte garrantzi handia eman zaiola. Izan ere, txostenotan atal honen baitan urteko datuez gain hasieratiko datuen bilakaera eta adin taldekako datuak ere aztertu izan dira.

Aurten, gauza bera egiten hasi eta konturatu gara erabiltzen den datu bilketa sistema honek behar besteko lagina lortzea ez duela bermatzen. Horren ondorioz, gure datuetatik ateratako ehunekoak ez direla errealitatearen erakusgarri ohartu gara.



Errekalden adibidez, aurten entzundako zaharren kopurua (lagina) 10 pertsonen soilik osatzen dute. Garbi dago kopuru honek ez duela errealitatea ordezkatzen. Gunekako analisi fidagarri bat egin nahi izanez gero, gutxieneko datu kopuru bat jaso beharko litzateke hori posible egingo lukeen metodo batekin.

Ondorioz, birplanteatu egin behar da gunekako datuen irakurketaren helburua zein den. Auzoetako errealitatea zehatz-mehatz ezagutu nahi bada, beharrezkoa da datu bilketa beste era batera egitea, behar besteko lagina batzen dela ziurtatuz. Bestalde, pentsa daiteke benetan lan honen helburua aipatutakoa bada, ez duela inolako zentzurik soilik bi auzoetara mugatzeak.

Azkenik, honelako analisi bat egiterakoan beste era bateko zailtasun bat ere ikusi dugu: jendearen mugikortasuna. Nola ziurta daiteke entzundako pertsona gune horretako biztanlea dela? Hauek kontuan izanik aurreko txostenen bideari jarraituz datuok eman emango ditugu baina aztertu beharrean, aipatu berri duguna baieztatzeko erabiliko ditugu.

Hasteko, aurtengo datuei dagokien taula jarri dugu; ondoan berriz, 2000ko datuen taula, goian esandakoa ikustarazteko.

2003



2005

Ikusten denez, Errekaldeko 16,42 puntuko igoerak grafikoa era bat aldatzen du


Aurreko txostenetan jasotzen den beste taula bat ondokoa da. Bertan, Errekalde eta beste bi gunetako datuak konparagarriak izan

daitezen, osteguneko datuak ematen dira.

	GUZTIRA	OSTEGUNA 24
HERRI BARRUA	%62,24	%68,25
OLAKUA-SAN LORENTZO	%51,63	%57,46
ERREKALDE	%65,42	%65,42

Herri barruko datuei begiratuta ikusten da emaitza asko baldintza dezakeela datuak egun bakarrean edota egun gehiagotan jasotzeak.



Oraingoan bilakaera guneka aztertuko dugu.



	KN 89	KN 91	KN 93	KN 95	KN 97	KN 00	KN 03	KN 05
H.B.	45,70%	57,40%	62,60%	56,80%	58,20%	57,50%	58,58%	62,24%
O.S.	57,70%	63,30%	62%	63%	55,60%	56,27%	60,94%	51,63%
ERREK.	39,50%	40,60%	53,30%	44,60%	51,70%	52%	68,42%	65,42%

Batez ere Errekaldeko kasuan, urte batetik besterako jauziak oso deigarriak dira: 91tik 93ra, 95etik 97ra eta 2000tik aurtengo urteko datuetara. Ez da sinesgarria batetik, 2-3 urtetako epean euskararen erabilerak tamainako aldaketak jasatea; eta bestetik, joera bakar bat izan beharrean bilakaeraren tendentzia aldakorra izatea.

Aurreko txostenetan guneka eta adin taldekako datuen irakurketa egiterakoan bilakaerari ez zaio erreparatu, urteko datuak aztertu baitira. Aurten ordea, aurretik aipatutako arrazoiengatik ez gara 2003ko datu horien baieztapenik egiten ausartzen. Honen ordeztan, aurtengo txosteneko datuak 2000koekin konparatuko ditugu gure zalantza sortu duten datuak bistaratzeko. Erreparatu Olara San Lorentzoko gazte eta zahar eta Errekaldeko gazte, heldu eta zaharren datuetan 2000tik 2003ra dagoen aldaketa. Berezi Errekaldeko zaharren erabileran egon den gorakada izugarria, %30,43ko erabileratik %60ra pasa baita.



	HAURRAK		GAZTEAK		HELDUAK		ZAHARRAK	
	2003	2005	2003	2005	2003	2005	2003	2005
H.B.	%89	85,09 %	%72,86	57,23 %	%44,21	79,37 %	%44,90	83,41 %
O.S.	%78,12	%	%86,36	%	%46,63	%	%54,55	%
ERREK.	%84,92	%	%66,67	%	%52,10	%	%60	%

3.6.EUSKARAREN ERABILERA IBILBIDEAREN ARABERA

Ondorengo taulan saio bakoitzean euskaraz entzundakoen ehunekoa ageri da.

KALEAK	AZAROAK 27 OSTEGUNA		AZAROAK 29 LARUNBATA		AZAROAK 30 IGANDEA	
	GOIZA (12-1)	ARRATS. (4:30-6:30)	GOIZA (11-1)	ARRATS (6-8)	GOIZA (1-2)	ARRATS (6-8)
HERRI BARRUA H.B.	%72,17	%65,66	%49,85	%61,52	%49,41	%70,1
SAN LORENTZO OLAKUA S.O.	%64,42	%51,61	%39,45			
ERREKALDE ERR.	%33,10	%67,28				

11 ibilbideetatik bakarrean entzun zen euskara gaztelera baino gutxiago: Herri Barruan igande goizean (%45). Hemen beste behin ere gogorarazi beharrean gaude datuotatik berehalako ondorioak ateratzea arriskutsua dela. Izan ere, horretarako baldintza bat bete beharko litzateke, hau da, gutxieneko lagin bat egon beharko litzateke eta geuk ezin dugu hori betetzen den edo ez ziurtatu.

4. ONDORIOAK

2003ko kale neurketaren arabera, gure herriko kaleetan euskara gaztelera baino gehiago hitz egiten da. Hain zuzen ere, Oñatin euskararen erabilera **%59.81ekoa** da.

- Adin talde bakoitzari dagokionez, **haurrek** jarraitzen dute Oñatin euskaraz gehien hitz egiten eta adinean aurrera joan ahala euskararen erabilera jaitsi egiten da. Aurtengo datuek lehenengo aldiz erakutsi dute **zaharren** erdiak baino gehiagok hitz egiten duela gazteleraz. **Helduen** euskararen erabilerak, berriz, gorakada esanguratsua jasan du. **Gazteen** hiru laurden inguruk jarraitzen du Oñatin euskaraz hitz egiten.
- **Ezagutzaren** datuak kontuan izanda, aipagarria da haur euskaldun ia guztiek euskaraz hitz egiten duten arren, gazte eta heldu euskaldunen laurdenak, gutxi gora behera, gazteleraz hitz egiten dutela. Euskaraz jakin arren hitz egiten ez duten zaharren ehunekoa da altuena: %34.04a, hain zuzen.
- **Sexukako** datuen **azterketak** erakutsi digu emakume euskal hiztunen ehunekoa gizonena baino altuagoa dela eta, aurtengoan behintzat, alderantzizko susmoa bertan behera geratzen da. Gizonezko gazteak dira bakarrik adin bereko emakumeek baino euskaraz gehiago hitz egiten dutenak.

- Aurreko urteetan bezala, aurten ere **gunekako datuak** jaso ditugu baina hauen irakurketa egin beharrean, guneei buruzko informazio fidagarria lortu nahi bada, datu bilketan aldaketa batzuk egin behar direla erakusteko erabili ditugu. Izan ere, gaur egungo sistemak ez baitu bermatzen gune guztietan behar besteko lagina jasotzea.

Gai honi eta beste batzuei buruzko **proposamenak** luzatuko ditugu ondorengo atalean. Hurrengo neurketetarako erabilgarriak izango direlakoan:



5. PROPOSAMENAK

Orain arte datu bilketa hiru egunetan, goiz eta arratsalde, burutu izan da. Ondorengo irakurketa, berriz, egun horietan batutako datuetan oinarrituta egiten da.

Bestalde, fitxa teknikoari buruzko atalean azaldu dugun moduan, adin talde bakoitzaren tamaina nahikoa izan dadin, eroldako biztanle kopuruaren %20a jaso behar da gutxienez.

Hau hala izanik, eguraldia edo beste edozein arrazoirengatik aurrezarritako egun, ordu eta lekuetan behar adina pertsona entzuten ez diren kasuetarako irtenbideren bat aurreikusi beharko litzatekeela uste dugu. Hala nola, datu-biltzaileek beraien lanari ekin aurretik adin talde bakoitzeko gutxienez zenbat pertsonen datuak jaso behar diren kalkulatu beharko litzateke eta ondoren, azken **entzunaldia luzatu** edo beste entzunaldi bat edo gehiago egiteko aukera irekita uztea da gure lehenengo proposamena.

Gunekako datuen bilketa eta azterketari buruz bi aipamen egingo ditugu:

Batetik, uste dugu gaur egungo ereduak ez dizkigula gune bakoitzari buruzko datu fidagarriak ematen. Honek ez du esan nahi datuotatik inolako informaziorik lor ezin daitekeenik. Hau da, euskararen erabilerari buruzko datu orokorren eta adin taldekako eta sexuen araberako datuen analisirako erabilgarriak diren arren, ez ordea gune bakoitzaren egoera aztertu eta ondorio fidagarriak ateratzeko.



Arazo honen aurrean bi aukera ikusten ditugu: datu bilketa sistema berarekin jarraitu baina txostenean gunekako azterketarik ez egitea, bata; eta auzo ezberdinei buruzko informazioa izan nahi bada, berriz, behar adina datu biltzen direla bermatzea, bestea. Bigarren bidea aukeratuz gero, auzo bakoitzeko bizilagunen errolda eduki beharko litzateke eta beronekin laginaren kalkulua burutu, ondoren datuak biltzeko.

Honetaz gain, ordea, bigarren aukera egin aurretik ondorengo gogoeta kontuan hartu beharko litzateke: datu biltzaileek bere lanean, batez ere Herri Barrua deituriko gunean, beste auzo batzuetako bizilagunak entzun eta hauen datuak ere jasotzen dituzte. Gaur egun erabiltzen den sistemak, ordea, ez du ahalbidetzen gune bakoitzean gune horretako biztanleak soilik kontuan izatea, bilketa kalean dagoen jendeari entzunda egiten baita eta ez jendearengana zuzendu eta galdera-erantzunen bidez.

Bestetik, kontuan hartu beharrekoa iruditzen zaigu **auzo "berriei"** dagokienean herriak jasandako aldaketa. Hori dela eta, agian, kale neurketako ibilbideak zabaldu eta Bidebarrieta inguruan ere datu bilketa egin beharko litzateke.

Azkenaldian, Oñatiko mapaz gain biztanleriaren osaketa ere aldatzen ari da. Gero eta **etorkin gehiago** ditugu herrian eta, badirudi, aurrerantzean ere joera mantendu edo bizkortu egingo dela. Interesgarria deritzogu, baita ere, ondorengo neurketetan faktore honen jarraipen bat egitea. Bestalde, desiragarria izango litzateke etorkinen ugaritze honek ondorengo urtetako emaitzetan eraginik ez izatea, hauek behar bezala integratuak izan direla esan nahi izango

bailuke.

Orain arte hitz egiten ari den pertsonaren datuak eta berarekin doazenenak, guztienak, jaso izan dira, baina pertsona jakin bati buruzko informazioa hartzerakoan ez da zehaztu izan bere solaskideari buruzkorik. Adibidez, emakume heldua gizonezko zaharrarekin euskaraz hitz egiten ikusiz gero, bi marratxo egiten ziren zegokien laukietan, baina ez zen inon ere nor norekin hitz egiten ari den adierazten. Gure azken proposamena, datu bilketan **helduak beste heldu batekin edo haur batekin hitz egiten** ari diren zehaztea; eta ondoren, honi buruzko azterketa egitea da. Izan ere, ohikoa da pertsona helduek haurrei euskaraz eta beraien artean gazteleraz hitz egitea. Xehetasun berri hori gehitzeak, Oñatiko helduen artean ohitura hori zenbaterainokoa den ezagutzeko aukera emango liguke.

